


FAMILIEN KONFIANTZA

EAEko familiek konfiantzari eusten diote, aldaketa handirik gabe

EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2023KO 3. HIRUHILEKOA

-4




Hirugarren hiruhilekoan, EAEko familiek aurtengo lehen erdian zuten konfiantza mailaren oso antzekoa erakutsi zuten, Laboral Kutxak egindako inkestaren arabera. Horrela, konfiantza indizea -4 izan zen, aurreko bi balioetatik oso gertu. Horri esker, aurtengo lehen hiru hiruhilekoen batez bestekoa -4 horretan dago, hain zuzen ere, eta inkesta horrek aurreko bi urteetan (-11 eta -9) erregistratutakoa baino emaitza baikorragoa eskaintzen du orain.

Europako herrialde nagusiekin alderatuz gero, hautematen da EAEko familien baikortasuna beste lurraldeetako baino zertxobait handiagoa dela, nahiz eta horietan ere igurikimenak hobetu egin diren. Zehazki, lehen hiru hiruhilekoen batez bestekoak -13ko balioa ematen du Europar Batasunean, eta lau puntuko hobekuntza 2023koaren aldean. Alemanian eta Espainian ere lau puntu inguruko hobekuntza nabari da.


FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2022	2023	2023			2024		
			II	III	IV	I	II	III
Euskadi	-11	-9	-7	-13	-9	-5	-3	-4
Europar Batasuna	-22	-17	-18	-17	-16	-14	-13	-12
Frantzia	-18	-17	-17	-15	-15	-13	-15	-14
Alemania	-20	-15	-13	-15	-15	-15	-10	-9
Espainia	-26	-19	-19	-16	-19	-17	-14	-14

EKONOMIA OROKORRA




FAMILIAREN EKONOMIA




Atalkako azterketak adierazten du ezkortasuna batez ere ekonomia orokorrari buruzko iritzietan kontzentratzen dela (-15), nahiz eta azken lau aldietan hobetzeko joera nabaritzen den. Etxeko ekonomiari buruzko iritzia hobea da, eta azken hiruhilekoko datua (-6) eta aurreko bi aldietakoa dira azken hiru urteetan jaso diren altuenak.

Langabeziari buruzko erantzunak posizio neutroan (0) kokatu dira, eta pixka bat okerrera egin dute aurreko bi hiruhilekoekin alderatuta; hala ere, egungo maila 2022ko bigarren seihielkotik izandako handienetakoa da. Amaitzeko, EAEko familiek aurrezteko gaitasunari eusten diote, eta gaitasun hori azken aldietako balio garrantzitsuenetako bat ere bada.

LANGABEZIAREN BILAKAERA



AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral Kutxa.

